

**DATUAK BABESTEKO KATALUNIako AGINTARITZAREN ETA DATUAK  
BABESTEKO EUSKAL AGINTARITZAREN ARTEKO LANKIDETZAKO ESPARRU-  
HITZARMENA, FRIA METODOLOGIA INPLEMENTATZEKO**

Bartzelona, 2025eko ekainaren 5

**HONAKO HAUEK BILDU DIRA:**

Alde batetik, Meritxell Borràs i Solé andrea, Datuak Babesteko Kataluniako Agintaritzaren (aurrerantzean APDCAT) zuzendaria, haren izenean eta hura ordezkatzuz, izendapenari buruzko 2022ko otsailaren 10eko 231/XIV Ebazpenaren arabera, eta Datuak Babesteko Kataluniako Agintaritzaren urriaren 1eko 32/2010 Legearen 7.1 eta 12. artikuluek ematen dizkioten ahalmenak erabiliz.

Eta, bestetik, Unai Aberasturi Gorriño jauna, Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren (aurrerantzean DBEA) lehendakaria, haren izenean eta hura ordezkatzuz, Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren 2023ko abenduaren 21eko 16/2023 Legearen 8. eta 21.3 artikuluek ematen dizkioten ahalmenak erabiliz.

Bakoitzak bere erakundearen izenean eta hura ordezkatzuz jarduten du, eta biek aitortzen diote elkarri lankidetzako esparru-hitzarmen hau izenpetu ahal izateko jarduteko legezko gaitasuna. Era berean,

**HONAKO HAU ADIERAZTEN DUTE:**

I. Adimen artifiziala (AA) gero eta agerikoagoa da gure gizartean. Zentzu zabalean hartuta, edozein esparrutan erabakiak hartzeko laguntza-tresna gisa ikus dezakegu. Erabakiak hartzeko euskarri horrek pertsoneri eragiten die, baita nabarmenki eragin ere, datuak eta teknologiak profilak eta ereduak marrazten baitituzte erabakiak hartzeko eta pertsonengan eragin zuzena izateko.

Gizakia ardatz duen eta fidagarria den teknologia gisa taxutzen da adimen artifiziala erregulatzen duen araudia; horrek behartuta, arlo horretan eskudunak diren agintaritzek, euren eskumenak egikaritzen dituztenean, bi erronka horiek lortzeko bermea ematea izan behar dute gogoan.

Adimen Artifizialaren Erregelamenduak dioenez, bere xedapenek ez dituzte baztertzen datuen babesaren arloko agintaritzaren eskudunei dagozkien eskumenak, ezta datu pertsonalen babesari buruz eta pertsonak erabaki automatizatuen objektu ez izateko duen eskubideari buruz DBEOn ematen diren xedapenak ere.

Halaber, Adimen Artifizialaren Erregelamenduak 27. artikuluan xedatzen duenez, arrisku handiko sistemak hedatu baino lehen hainbat eginbehar bete behar dira, besteak beste oinarritzko eskubideen gaineko eraginaren ebaluazioa egitea, arrisku handiko sistemarako. Aldi berean, datuak babesteko kontrol-agintaritzak, 77.2 artikulua babespian, oinarritzko eskubideak babesteko ardura duten agintaritzaren izendatu dira. Horrek esan nahi du arlo horretan alfabetizazioa eta sentsibilizazioa sustatu behar

dituztela, eta, horren haritik, gidak eta tresnak eskueran jarri behar dituztela, ordenamendu juridikoak ezartzen dituen eginbeharrak betetzen laguntzeko.

Helburu horrekin, APDCATek, DBOen sarearen barruan, eta Alessandro Mantelero irakasle eta adituarekin elkarlanean, adimen artifiziala erabiltzean oinarritzko eskubideen gaineko eragina ebaluatzeko eredu bat (AIDF) prestatu du, FRIA ereduaren izeneko. Eredu teoriko baten inguruan egituratzen da European aitzindari den eredu hori, baina erabilera-kasuetan aplikatzeari buruzko argibideekin. Hori guztia, hedapenaren arduradunek eta hornitzaileek tresna errazak eta erabilgarriak eskura izan ditzaten, Adimen Artifizialaren Erregelamendua bete ahal izateko.

Era berean, beste instituzio publiko eta pribatu batzuekiko elkarlana gogoan izanik sortu da gida metodologiko hau, beste esperientzia praktikoa batzuen jakintza joria bereganatzeko. Hala, adimen artifizialeko sistemen gardentasuna eta azalgarritasuna sakonago aztertu ahal dira eta, bide batez, oinarritzko eskubideen babes bermatu ahal da.

II. Datuak Babesteko Kataluniako Agintaritzaren urriaren 1eko 32/2010 Legeak ezartzen duenez, agintaritza hori organismo independentea da, eta helburu du, Generalitatearen eskumenen esparruan, datu pertsonalak babesteko eta lotuta dagoen informazioa irispidean izateko eskubideak bermatzea, ezertan galarazi gabe arlo horrekin lotuta esleitzen zaizkion beste eskumen batzuk egikaritzea.

III. Datuak Babesteko Kataluniako Agintaritzaren urriaren 1eko 32/2010 Legearen 12. artikuluan onartzen denez, APDCATek lankidetzaren hitzarmenak izenpetu ditzake pertsonen eskubideak defendatzeko beste instituzio eta organismo batzuekin.

IV. Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren abenduaren 21eko 16/2023 Legearen arabera, ente hori kontrol-agintaritza independentea da, nortasun juridiko propioa eta gaitasun publiko eta pribatu erabatekoa ditu, eta bere eskumena da euskal sektore publikoan datu pertsonalak babesteko eskubidea errespetatzen dela bermatzea, ezertan galarazi gabe esleitu ahal zaizkion beste eskumen batzuk egikaritzea.

Entitate biek, datu pertsonalen babesaren eta adimen artifizialeko sistemak arautzearen arloan lankidetzan aritu behar jakitun, esparru-hitzarmen hau izenpetzen dute, eta honako estipulazio hauen arabera gauzatzen dute:

## ESTIPULAZIOAK

### LEHENENGOA. Xedea.

Hitzarmen honen xedea da lankidetzako esparru bat ezartzea APDCATen eta DBEAren artean, adimen artifizialeko sistemak hedatzean datu pertsonalen babeserako araudia inplementatzeko, eta zehazki, FRIA ereduaren bultzatzeko, APDCATen eta DBEAren eskumenen esparruan sartzen diren entitate eta subjektuek erabili beharreko gida metodologikoa delakoan.

Gainera, aurrekoarekin lotuta, alderdiek honako hau egingo dute, elkarlanean:

- Jarduera jakin batzuk egiteko laguntza materiala eman.
- Prestakuntzako eta zabalkundeko jarduerak sustatu.
- Elkarrekin ados jarrita ezartzen dituzten beste jarduerak batzuk egin.

## **BIGARRENA. FRIA eredua implementatzea**

Seigarren estipulazioan aipatzen den jarraipen-batzordearen barruan, alderdietako bakoitzak bestearekin partekatuko ditu FRIA eredua inplementatu nahi deneko jarduketak edo erabilera-kasuak, alderdi biek eredu hori praktikoki aplikatzeko elkarlanean aritzea erabaki ahalko dute, eta metodologia erabiltzearen ondoriozko emaitzak elkartrukatuko dituzte.

FRIA eredua inplementatzearen ondorioz sortzen den dokumentazio guztian eta egiten diren jarduketa guztietan, FRIA eredua APDCATEk garatu duela agerrarazi beharko da.

## **HIRUGARRENA. Jarduera jakin batzuk egiteko laguntza materiala**

Bi alderdiek konpromiso hau hartzen dute: ahal den neurrian, eta kontuan hartuta une bakoitzean dagoen lan-karga eta eskura dauden baliabideak, elkarri laguntza ematea eta hitzarmen hau betetzearekin zerikusia duten eginkizunak egikaritzean unean-unean lankidetzan aritzea.

## **LAUGARRENA. Prestakuntzako eta zabalkundeko jarduerak sustatzea**

Bi alderdiek konpromiso hau hartzen dute: lankidetzan aritzea FRIA eredua hedatzearekin zerikusia duten dokumentuak prestatzen eta zabaltzen, bai eta prestakuntzako eta zabalkundeko jardunaldi eta jarduera bateratuak antolatzen ere.

## **BOSGARRENA. Jarduteko akordioak eta protokoloak**

Hitzarmen honek ez dakar eginbehar ekonomikorik berori izenpetu duten alderdientzat.

Aurreko hori gorabehera, bidezkoa denean, berariazko akordio eta protokoloak izenpetuko dira, alderdiek lankidetzako-protokoloa izenpetuz beren gain hartzen dituzten lankidetzako konpromisoak –aurreko klausulen bidez azaldu diren horiek– garatzeko.

## **SEIGARRENA. Jarraipen-batzordea.**

Hitzarmenaren jarraipen-batzordea sortzen da. Batzordeak lau kide ditu, hau da, hitzarmena izenpetzen duen alderdi bakoitza ordezkatzeko bi. APDCATEN aldetik, jarraipen-batzordean parte hartuko dute aholkularitza juridikoko buruak eta datuak babesteko ordezkarikari eta proiektu estrategikoen arduradunak, edo haiek eskuordetutako pertsonak. DBEAREN aldetik parte hartuko dute aholkularitza juridiko eta ikuskaritza unitateko arduradunak eta modernizazioko arduradunak, edo haiek eskuordetutako pertsonak.

Alderdietako batek eskatzen duenean bildu daitekeen arren, gutxienez hiru hilean bildu beharko da, eta honako eginkizun hauek izango ditu:

- FRIA eredua aplikatzeko batera egin beharreko jarduketak erabakitzea.
- Garatzen ari diren kasuen emaitzen berri ematea beste alderdiari.

- Adimen artifizialeko sistemen kontrolarekin zerikusia duen informazio interesgarria elkartrukatzea.
- Erabakitzen diren jarduketak betetzeari buruzko jarraipena egitea.
- Urteko jarduera-plana, programak eta ekintza zehatzak zehaztea, halakorik badago, eta jarduera horiek nola gauzatu eta finantzatuko diren zehaztea, hitzarmen honen xedearekin zerikusia duen guztian.
- Hitzarmena aplikatzeari eta interpretatzeari buruz egon daitezkeen gorabehera guztiak ebaztea.

Batzordearen idazkariak bilera bakoitzaren akta jaso beharko du. Alderdi bien adostasunarekin hautatuko da idazkari hori.

**ZAZPIGARRENA. Datu pertsonalen tratamenduari buruzko informazioa, ordezkariari eta hitzarmena izenpetzen duten alderdien harremanetarako pertsonen dagokienez.**

Izenpetzen duen alderdi bakoitza da hitzarmen honetan jasotako datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna, ordezkarien nahiz harremanetarako pertsonen datu pertsonalei dagokienez, baldin eta hitzarmena betearazteko halako datuak tratatu behar badira. Tratamenduaren arduradunen harremanetarako datuak honako hauek dira:

- APDCAT: Datuak Babesteko Kataluniako Agintaritzaren Zuzendaritza. Egoitzaren helbidea: Gran Vía de les Corts Catalanes, 635, 1. solairua, 08010 Bartzelona. Posta elektronikoko helbidea: [apdcat@gencat.cat](mailto:apdcat@gencat.cat) [www.apdcat.cat](http://www.apdcat.cat)
- DBEA: Datuak Babesteko Euskal Agintaritza. Egoitzaren helbidea: Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea 71, 3. solairua, 01008 Vitoria-Gasteiz. Posta elektronikoko helbidea: [avpd@avpd.eus](mailto:avpd@avpd.eus) [www.avpd.eus](http://www.avpd.eus)

Datu pertsonalen tratamenduaren helburua da hitzarmen honen kudeaketa, jarraipena eta betearazpena. Datu pertsonalen tratamendurako oinarri juridikoa, DPBEBLOren 19. artikularen arabera, interes publikoaren izenean burututako eginkizun bat betetzea da, DPBEBLOren 77.1 artikuluan azaltzen diren tratamendu-arduradunen kasuan, edo tratamendu-arduradunaren interes legitimo bat betetzea, gainerako kasuetan. Datu pertsonalak gorde egingo dira, bildu zireneko helburua betetzeko eta datu tratamenduaren ondorioz izan litezkeen erantzukizunak zehazteko behar adina denbora, ez gehiago. Ez dago aurreikusita datuak hirugarrenei lagatzea, non eta horretarako lege-eginbeharrik ez dagoen.

Datuen titularrek eskubidea dute datuak irispidean izateko, baita zuzentzea eta ezerezteka eskatzeko, tratamenduaren aurka egiteko, datuak eramateko edo tratamendua mugatzeko ere. Horretarako, tratamenduaren arduradunari zuzendutako idazki bat bidali behar dute lehenago aipatu diren helbideetara. Euren eskubideak behar bezala artatu ez direla uste izanez gero, horren berri eman ahal diote hitzarmena izenpetzen duen alderdi bakoitzeko datuak babesteko ordezkariari:

- APDCAT: Gran Vía de les Corts Catalanes, 635, 1. solairua, 08010 Bartzelona [dpd.apdcat@gencat.cat](mailto:dpd.apdcat@gencat.cat)
- DBEA: Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea 71, 3. solairua, 01008 Vitoria-Gasteiz, [dpd-dbo@avpd.eus](mailto:dpd-dbo@avpd.eus)

Halaber, datuen titularrek erreklamazio bat aurkeztu ahal diote datuen babesa egiaztatzeko eskumena duen agintaritzari.

Alderdiek konpromisoa hartzen dute klausula honen edukiaren berri beren instituzioetako harremanetarako pertsoneri emateko, pertsona horiek hitzarmen honen betearazpenean parte hartuz gero.

### **ZORTZIGARRENA. Irudi instituzionalaren erabilera.**

Hitzarmen hau sinatzeak ez du esan nahi alderdietako bakoitzak baimena duenik beste alderdiaren logotipoa edo marka erabiltzeko, salbu eta espresuki beste alderdiaren baimena badauka.

### **BEDERATZIGARRENA. Hitzarmenaren iraupena eta aldaketa.**

Izenpetu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean hitzarmen hau, eta 4 urteko indarraldia izango du. Indarraldia amaitu baino lehen, alderdiek hitzarmena luzatu ahalko dute, idatziz eta espresuki, gehienez ere beste 4 urte.

Alderdi bietako edozeinek hitzarmena salatzea erabakitzen badu, idatziz jakinarazi beharko dio beste alderdiari, eta jakinarazpena egin eta hiru hilabeteko epean amaituko da hitzarmena.

Hala ere, hitzarmen honen babesean aldeek adostutako jarduketa-planek eta programek edo berariazko ekintzek indarrean jarraituko dute bertan erabakitakoa amaitu arte.

Hitzarmen hau alderdiek xedeari buruz hartutako akordio osoa da, eta idatziz soilik aldatu ahalko da, alderdiak ados jarrita.

### **HAMARGARRENA. Suntsiarazteko arrazoiak**

Arrazoi hauengatik azkenduko da hitzarmen hau:

- a) Akordioaren indarraldia amaitzeagatik.
- b) Ezarritako epea amaitu baino lehen alderdiek, ados jarrita, hala erabakitzeagatik.
- c) Hitzarmen honen xedea bete ezin izateagatik, legez edo arrazoi materialengatik.
- d) Alderdietako edozeinek hitzarmenaren funtsezko estipulazioetako bat modu larrian edo behin eta berriz ez betetzeagatik.  
Kasu horretan, alderdietako edozeinek hitzarmena bete ez duen alderdiari errekerimendu bat jakinarazi ahalko dio, eginbeharrak bete ditzan. Errekerimendu horren berri emango zaio jarraipen-batzordeari.  
Errekerimenduan adierazitako epea igarotakoan ez-betetzeak irauten badu, hitzarmena suntsituta dagoela ulertuko da.
- e) Alderdietako batek salatzeagatik, baldin eta beste alderdiari espresuki eta idatziz jakinarazi bazaio.
- f) Hitzarmenaren deuseztasuna deklaritzen duen erabaki judizial batengatik.
- g) Aplikatu beharreko indarreko legerian xedatutako beste edozein arrazoiengatik.

### **HAMAIKAGARRENA. Auzigaiak.**

Alderdiek konpromisoa hartzen dute hitzarmen hau interpretatzean edo betetzean sor daitezkeen desadostasunak adiskidetasunez konpontzen saiatzeko, jarraipen-batzordearen bitartez, dagokion jurisdikzioan erreklamazio bat hasi aurretik.

## **HAMABIGARRENA. Gardentasuna**

Izenpetu ondoren, hitzarmena DOGCen eta gardentasun atarietan argitaratu behar da, Kataluniako Araubide Juridikoari eta Administrazio Publikoetako Prozedurari buruzko abuztuaren 3ko 26/2010 Legearen 110.3 eta 112. artikuluetan eta Gardentasunaren, informazio publikoa eskuratzeko bidearen eta gobernu onaren abenduaren 29ko 19/2014 Legearen 14. artikuluan xedatzen denaren arabera.

Gainera, hitzarmenari publizitatea eman beharko zaio, Euskal Sektore Publikoari buruzko maiatzaren 12ko 3/2022 Legearen 33. artikuluan eta estatuko oinarrizko araudian ezarrita dagoenaren arabera.


Ados daudela adierazteko, esku hartzen duten alderdiek lankidetzako esparru-hitzarmen honen jatorrizko bi ale izenpetzen dituzte, goiburuan adierazitako tokian eta egunean, eta alderdi bakoitzak ale bana edukiko du.

APDCATen aldetik:  
Meritxell Borràs i Solé



Zuzendaria

DBEAren aldetik:  
Unai Aberasturi Gorriño



Lehendakaria